


GAZTEAK ZAINZAK BIZIZ

GAZTEEN GIZARTEKO PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO PROPOSAMENA



- Editatzailea: InteRed.
- Koordinazioa: Raquel Tanarro.
- Diseinua eta maketazioa: Freepress S. Coop. Mad.
- Inprimatzea: Iarriccio Artes Gráficas S.L.
- Data: 2017.

Lan hau nahi bezala kopiatu, banatu eta publikoki komunika daiteke, betiere egiletza onartzen bada eta ez bada merkataritza-helburuetarako erabiltzen.

Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan hau abiapuntu hartuta beste bat sortu.



ALGUNOS DERECHOS RESERVADOS

(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>)

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) diruz-lagunduta egin da. Argitalpen honen edukiaren erantzukizun eskusiboa InteRed-ena da eta ez du nahitaez AECIDen iritzia islatzen



SARRERA

InteRed-ek munduko herritar, eraldatzaileak lortzeko hezkuntza bultzatzen du, eskubide gisa, baina baita subjektu eta gizarte justuagoak eraikitzeko bitarteko gisa ere, non bazterketa eta desberdintasunak, edozein izanik ere, murriztu edo desagertzen diren.

Duela lau urte, **InteRed**-ek abiatutako kanpaina da “Zaintzak”¹, uneko sistemaren erdigune, dirua eta merkatua izan beharrean, pertsonak izatearen garrantziaz kontzientziatzeko. Etxeko zaintza, bizi garen planetaren zaintza eta geure buruaren zaintza aintzat hartuta errealitateari begiratzen uzten digu bizitza erdigunean jartzeak. Mundu honetan ahalik eta hoberen bizitzeko asmoz aurrera egiteko, konpontzeko eta mantentzeko jarduera horiei guztiei (jatea, sendatzea, gaixoei arreta ematea edota haurtxoak, lagunak edo ingurunea zaintzea) deitzen diegu zaintzak. Herritarren egitekoa ezinbestekoa da bizitza eta gizarteak mantentzeko. Alabaina, gizarte horietako antolaketak eta erantzunkidetasunak banaketa eta eragin desberdina dute gizonen eta emakumeen artean.

Gure kanpaina antolatutako pertsonen eta taldeen eramaten diegu eta herritarrok parte hartzeko eta ekiteko dugun eskubidea gauzatzeko gonbidapena egiten dugu: ikastetxeetan, heziketa-gune ez-formaletan, aisialdirako eta denbora liberako guneetan, unibertsitateetan eta antolatutako gizarte zibileko arloetan.

Gure **Zaintzen iraultzarekin**² erdigunean bizitzaren jasangarritasuna jartzen duen eta, batez ere emakumeek, egunero egiten ditugun zaintza-ekintzak agerian jartzen dituen agenda pertsonal, politiko eta soziala eraiki nahi dugu, sistema iraultzeko eta errotik eraldatzeko.

Helburu horrekin, Espainiako Nazioarteko Lankidetzeta Agentziak (AECID) 2015ean egindako deialdian, InteRed-ek aurkeztutako “**Nerabeentzako eta gazteentzako herritarren partaidetzako proposamena zaintzaren eta erantzunkidetasunaren**

1. www.actuaconcuidados.org

2. <https://www.intered.org/sites/default/files/campana/para-ti-y-para-mi-web.pdf>

ikuspegitik” proiektua diruz lagundu zuen. Proiektuaren asmoa nerabeak eta gazteak herritarren partaidetzako prozesuetan parte hartzea bultzatzea izan da tokian-tokian eta mundu-mailan ekiteko zaintzaren eta erantzunkidetasunaren ikuspegitik, gizarte-mobilizazioaren bidez eta sare sozialetan zabalduz, baita hezkuntza-arloko (irakasleak) eta elkarteetako (hezitzaileak) agente biderkatzaileak heziz ere.

Dokumentu honetan Espainiako bost hiritan (Malaga, Zaragoza, Burgos, Salamanca eta Valladolid) ezarritako “Gazteak zaintzak biziz. Gazteak mobilizatzeko gida” proposamen didaktikoaren esperientziak biltzen dira.

Testuinguru, gizarte-talde, jatorri eta sinesmen desberdinetako gazte-taldeekin lan egiteko prozesutik ateratako irakasgai nagusienak erakutsi nahi dira dokumentu honetan.

EKIMENAREN SORRERA...

...IRren Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH) ikuspegia:

GHGH gizarte- eta heziketa-prozesu etengabe gisa hartzen duen ikuspegia, herritar global kritikoak, erantzulea eta konprometitua bultzatzen duena (bai banakoen mailan bai talde-mailan), tokiko errealitatea eta mundu-mailakoa eraldatuz, mundu justuago bat eraikitzeko, berdinagoa eta aniztasunari eta ingurumenari errespetu handiagoa diena, guztiok libre eta behar bezala garatu ahal izan dezagun.

...IRk bultzatutako Parte-hartze proposamena:

Gizartean partaidetza kritikoa eta sormenezkoa izateko herritarren gaitasuna indartu nahi duen ekintza-proposamen bat, herritar aktibo eta etikoki arduratsu gisa; ekintza jakinetan konprometitzeko gaitasuna motibazioz eta baikortasunez; gizakiaren gizarte-, kultura- eta natura-ondarea babesteko eta hobetzeko gaitasuna.

...Gizarte-mobilizazioa aldaketa-tresna gisa delako uste osoa:

Errealitateko alderdi bati buruz sentsibilizatu eta hura ulertzeko hezi den eta ikertu duen edozein pertsonak jarduera eta portaera berriak dituelako ideian oinarritzen da uste hori. Eta jarduera eta portaera berri horiek ordezkartzeko demokrazian oinarritutako sistema bat zalantzan jartzera irits daiteke, herritarren partaidetza-ardatza aldiari behin banaka emandako botoan oinarritzen baita. Bestalde, jende ugariaren bidezko gizarte-mobilizazioak partaidetza etengabea eta egunerokoa izatea inplikatzeko du.

...gune publikoez “jabetzeko” ideia:

Mugimenduek eta mobilizazioek talde-ekintzen mekanismoak abian jartzea dakarte berekin, eta taldearen lehen ekintza eta oinarritzakoa atea ireki eta kalera irtetea izan ohi da. Eta han koalizio bat egitea gune publikoaren zati jakin batez jabetzeko, gauza bera eta une berean egiteko asmoz eta borondate adierazgarri beraz, kalea hartzea funtsezko presio politikoko tresna bihurtuz.

...Generoaren ikuspegia

Errealitatean gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak eta desberdintasunak kontuan hartzen dituen da generoaren ikuspegia. Hau da, generoak arazoak eta zailtasunak ebazteko, bizitzan eta pertsonen aukeretan duen eragina bistaratzeko duen modua da. Emakumeen ahotsetik eta esperientziaz abiatuta, gaur egun gailentzen den garapen-eredua zalantzan jartzen dugu eta zaintza-lanetan berdintasuna, emakumeen ahalduntzea eta erantzunkidetasuna bultzatzeko lanetan dihardugu. “Zaintzaren etika” bat proposatzen dugu, zaintza, balore gisa ulertuta, Justiziaren, erantzukizunaren eta eskubideen pare jartzen duena.

...eta Giza Eskubideen Ikuspegia:

Ardatza pertsona da. Eskubideen benetako titular bera bezala ulertzen da, horien jabe eta sustatzaile gisa eta bere garapen pertsonalaren eta sozialaren protagonista gisa. Pertsona bere testuingurua era erantzunkidean eraldatzeko

aldaketa-agente bihurtzen da, pertsonen eta kolektiboen eskubideen urratzeak eragiten dituzten arrazoiak kontuan hartuta.

ZERGATIK EGIN DUGU GAZTEEN ALDE?

Bourdieu-ren arabera gaztaroa “hitz bat besterik ez litzateke”³, aro bat definitzeko gizarteak asmatutako hitz bat eta ez gizarte-aktore bat. Alabaina, azken urteetan, **gazteak** funtsezko subjektu politiko bihurtu dira gizarte-ekonomiako esperientzia berriak konfiguratzeko, gizarte-mobilizazioko eta baita artikulazio politikoko (M15 mugimendua, esaterako) laborategi berri ere.

Gizarte-partaidetza gazteak gizartean barneratzeko funtsezko dimentsioa da, bere bidez partekatutako etorkizun bat eraikitzeko dituzten aukera eta nahiak adierazten baitira. Gaur egun gazteriak mesfidantza handia agertzen badu ere partaidetza politikoko modu instituzionalizatuetan, parte hartzeko jarrera hobea erakusten dute XXI. mendeko gazteek dituzten arazoekin eta asmoekin zuzenean lotutako ekintzetan parte hartzeko.

InteRed-ek gizartea eraldatzeko misioan protagonista nagusitzat jotzen ditu gazteak, gizartea eraldatzeko funtsezko agentea, eta horregatik garrantzitsua da errealitate globalarekin konprometitu daitezen, giza eskubideak errespetatuz eta defendatuz bizi daitezen, garapen-eredu bidegabeak zalantzan jar ditzaten, ingurumena eta pertsonak zaintzen dituzten bizimoduak bultzatuz ditzaten eta munduan egoteko beste modu batzuk pentsatzeko sormenezko prozesuak proposa ditzaten.

Hori dela-eta, sentsibilizatzea, trebatzea eta gizarte-mobilizazioa helburu duten **gazteak ahalduzko** prozesuak sortzen laguntzen dituzten ekimenen alde egiten dugu. InteRed-en gazteekin egiten ari den ekintzaren funtsezko helburua zaintzekin, genero-parekidetasunarekin eta gizarte-

3. Bourdieu, Pierre. (2002). La “juventud” no es más que una palabra. En Sociología y cultura (pp. 163-173). México: Grijalbo, Conaculta.



Batxilergo lehenengo mailako ikasleak. Santa María la Nueva eta San Jose Artesano Institutoa, Burgos.

justiziarekin duten motibazioa eta konpromisoa bultzatzea da. Nerabeen eta gazteen taldeetan jarri nahi dugu gure lanaren fokua, mobilizatzen jarduera propioak diseinatuz. Eta “Gazteak zaintzak biziz” proposamenaren bidez egin dugu.

ZER DA GAZTEAK ZAINZAK BIZIZ?


“Gazteak zaintzak biziz”⁴ emetodologiaren **helburua gazteak** ahalduntzeko prozesu bat bultzatzea da, bidegabekia edo baztertzaileria jotzen dugulako eraldatu nahi dugun horren aurrean aldatzeko alternatibak sortzeko. Eta heziketa-metodologia berritzaileak erabiliz egiten da, ludo-pedagogia, ikerketa-ekintza parte hartzailea, lankidetzaz-heziketa, ikasketa-zerbitzua

4. <http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2017/07/INTERED-ACTUA-CUIDADOS.pdf>

edo metodologia ludiko-teatralak erabiliz. 2012an Andaluzian inplementatu zen metodologiaren hausnarketa, ekintza, sistematizazio eta kontraste eta balidazioaren fruitu da.

Proposamenaren helburua bizi-erperientzia eraldatzailea erraztea da (sentsibilizazioa-heziketa-kontzientziazioa-ekintza) mobilizazio-ekintzak eta beren ikastetxeetako, auzoetako, hirietako eta tokiko beste errealitateko beste eremu batzuetako bizitzak aldatzeko eta hobetzeko aldarrikapenak egiteko eragin politikoak taldean diseinatzeko eta praktikan jartzeko ikuspegi global batetik mobilizazio-taldeetan antolatutako gazteei. Gizarte-mobilizazioa herritar gisa hazteko bide gisa planteatzen du, ez emaitza gisa. Taldeak bere burua arakutzen du banako eta talde gisa, zentzu kritikoa eta hausnarketa garatzen ditu, errealitatea zalantzan jarriz subjektibotasunetik eta genero- eta zaintza-ikuspegitik lortutako gizarte-ereduaren azterketa.

Horrela, planeta-mailan eragiten dizkiguten arazoak ezagututa, eta herritarrek aldaketa-motor gisa duten paper protagonista aintzat hartuta, pertsona eta taldea ahalduntzeko prozesua hasten da, pixkanaka, banakoaren eta taldearen gaitasunak eta aukerak arakatu eta ekintzara pasatzeko, gertueneko testuinguruan, komunitateetan edo ikastetxeetan gizarte-aldaketa eragiten, erakusten, aldarrikatzen edo inspiratzen duten sormen-ekimenak diseinatu eta inplementatuz.



Garrantzitsua irizten diogu prozesuko FASEEN oinarriko kontzeptuak aipatzea:

- 1| **AUTOEZAGUTZA ETA TALDEAREN NORTASUNA.** Lehen fase honetan banakotik taldera pasatzen gara, banako gaitasunetatik eta trebetasunetatik abiatuta taldea osatzeko. GHGH gaitasunen barnean “Ikasi izaten errealitate konplexu batean” eta “Ikasi elkarbizitzen gatazkan dagoen gizarte batean” deitzen dena da fase hau. Fase honetan taldeak nor den, zer egitera etorri den eta zerk lortzen dituen taldea osatzen duten pertsonak arakutzen dute, eta ekiteko eta mobilizatzeko gaitasuna duen talde gisa ikusten dira. Fase honetako gakoa taldeko pertsonen baliabide pertsonalak edo giza baliabideak aitortzea, horien arteko loturak sortzea, identitate komun bat sortzea eta ekipoaren antolaketa-egitura bat eraikitzen hastea da.
- 2| **ERREALITATEAREN ANALISIA.** Fase honetan taldea eratzen hasten da errealitatea era kritikoa aztertzeko asmoz. GHGH, fase hau “Ikasi ezagutzen” gaitasunarekin lotzen da, eta taldeak arazoaren eta gatazka partekatuen jabe da, eta era kritikoa erkatzen ditu ezagutza-iturri desberdinekin, harremanetik, lankidetzeta-lanarekin eta arazo berari ekiteko bide desberdinak arakatuta. Hemen, erraztailearen helburua taldeak eztabaidarako, iritziak emateko, hausnartzeko eta kritikak egiteko eta talde-pentsamendu bateratua eraikitzeko barne-erakunde bat egitura dezan lortzea izango da.
- 3| **TALDE-ERAIKUNTZA.** Fase honetan, aurreko fasean hausnartu eta kritikoki pentsatu ostean erabakitako ekintzak gauzatzen hasten da taldea. Hemen, erraztaileak gune bat utziko dio taldeari bere ametsak definitzen ikasteko, errealitate berri bat desiratzeko eta amets eta errealitate berri hori lortzera bideratutako jardueren plangintza egiteko.
- 4| **EKINTZAK ETA EBALUAZIOA.** Taldea ekintzarako eta ekintzak gauzatzeko prestatuko da. GHGHn, “Ikasi ekiten” gaitasunarekin dator bat, gure ekintzatik eta emaitzetatik abiatuta nola sentitu garen, zein zailtasunekin eta gaitasunekin topo egin dugun, zer irten den ongi eta zer hobe dezakegun, zer lortu dugun, zer ikasi dugun eta etorkizunerako zein irakasgai atera ditzakegun ebaluatu eta aztertuko dugu.



NON INPLEMENTATU DUGU?

Malagan, Salamancan, Valladoliden, Zaragozan eta Burgosen gauzatu zen lan-proposamen hori, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneetan. Gazteen eta emakumeen **20 talderekin** egin zen lan, eta ia **500 pertsonak** hartu zuten parte, gehienak gazteak (% 61 neskak eta % 39 mutilak). Proposamena talde bakoitzaren tokiko errealitatera eta pertsonalera egokitu zen, nahiz eta esku-hartzearen egitura orokorra bere horretan mantendu zen. Hori dela-eta, ondoren egingo den jardueren azalpenean esku-hartzeak gehiago iraun zuen taldeak eta proposamena laburtu behar izan zen taldeak daudela ikusiko dugu. Edonola ere, beti mantendu zen prozesu osoa.

Egindako lanetik balio duten eta esanguratsuak diren irakaskuntzak ondorioztatu dira, proposamenak nola balio duen gizarte-partaidetza bultzatzeko gazteen artean, esaterako. Eta horretarako, bost hirietako **6 lan-talde** hautatu ditugu, errealitate eta testuinguru desberdinetakoak, proposamenaren moldaeraztasuna ikusarazteko.



1. TALDEA: Arrazismoa eta xenofobia salatzea

Non?

Santa María la Nueva y San José Artesano institutua (Burgos).

Heziketa-proiektu hau bateratutako bi ikastetxe dira: 60ko hamarkadan Elizbarrutiko Caritas-ek eta Burgosko artzapezpiku-barrutiak sortutako Santa María la Nueva eta San José Artesano. Gaztela-Leongo Juntarekin hitzartutako ikastetxea da maila guztietan: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Maila Ertaineko eta Goi-mailako Lanbide heziketa eta Batxilergoa, non Teresiarren Institutuak bere gain hartzen duen zuzendaritza eta pedagogiaren kudeaketa.

Gamonal auzoan dago, Burgos hiriko biztanle gehien dituen auzoan, eta batez ere langileak bizi dira bertan. 1939ra arte herri bat zen, baina landa-eremutik

industria-guneetara lan bila zetozen pertsonen migrazioak eragindako populazioaren hazkundearen ondorioz Burgosekin bat egin zuen.

Norekin?

DBHko 4Ako ikasleekin, 15 eta 16 urte arteko 13 mutil eta 10 neskekin.

Nola?

Bakoitzak bere burua ezagutzea, bere buruarekin hausnarketa bat eginda eta gainerako taldeko kideen iritzia entzunda. Lehen urratsa baita, hortik aurrera, pertsonalki eraldatzen hasi eta gizartea eta mundua eraldatzeko.

Hori dela-eta, inguruan merkatuen nahien arabera eraikita dauden gaur egungo munduaren eta gizartearen egoerari buruz sentsibilizatzeko lehen fase bat hasi zen, jasangarriak diren naturaren eta ingurunearen eta zaintza-jarduera batzuen beharra guztiz desagerraraziz, nahiz eta egiaz bizitza eusten duten jarduerak izan.

Errealitatea aztertu eta talde gisa zuen potentziala identifikatu ostean, bakarka nahiz taldean, eraikitze eta lantzea eta azpimarratzea garrantzitsu ikusten zuten gizarteko arazo baten alde mobilizatzeko garrantzia ikusi zuten, sentsibilizatzeko eta ikusarazteko ikastetxean eta iritzi publikoan. Kasu honetan, ARRAZISMOA salatzen zuten bideo bat egin zen.

Indarguneak


- Proposamena hezkuntza-gune formal batera moldatzen da eta horrek Hezkuntza Ministerioak proposatutako hezkuntza-curriculumeko gaitasun guztiak lantzea ahalbidetzen du.
- Era berean, argi ikusten da nola bultzatzen duen eraldaketa pertsonala eta taldekoa. Gazteak agente parte-hartzaileak eta motibatua bihurtzen dira eta mobilizazio-jarduerak protagonismoa ematen dio bere testuinguruan autoestimua gehitzeko eta gaitasun eta trebetasun pertsonalak garatzeko.

Ahulguneak

- Ikastetxeen dinamikak ez dute beti errazten prozesua, saioak oso laburrak baitira, tutoretza-eskolak hartzen baitira prozesua aurrera eramateko.
- Taldeek kide asko dituzte eta horrek zaildu egiten du pertsona bakoitzari protagonismoa eta tokia emateko lana.

Irakaskuntzak

- Partaideek urteak batera daramatzaten lehendik dauden hezkuntza formaleko talde batean esku hartzen denean, elkar ezagutzen dutela eta talde kohesionatu bat dela uste daiteke, baina ez da beti ahal izaten: askotan pertsonak etiketen bidez, portaeren bidez edo izenez soilik ezagutzen ditugu pertsonak, benetan nor garen, gure eta gure ingurukoen gaitasunak eta trebetasunak zein diren hausnartzera geratzea da, talde bat eraikitzen hasteko printzipioa, lotura berria eta nortasun komun bat sortuz.
- Banako eta taldeko ahalduntzetik, parte hartzera igarotzen gara era natural batean, hau da, herritarrak eraikitzen hasten gara, heziketa-curriculumak eta gaitasun-lan osoak lortu nahi duten azken xedea.
- Irakasleek metodologiari buruzko informazio gehiago eskatu zuten Bigarren hezkuntzako tutoretzen ekintza-planean sartzeko behin betiko.





2. TALDEA: Indarkeria matxistak ikusaraztea

Non?

Picasso ikastetxean (Malaga).

Ia 40 urteko esperientzia eta genero-berdintasunean eta Heziketa eraldatzailean bide luzea egindako Bigarren hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide-heziketako ikastetxea da. Gai horiek lehentasunezkoak izan dira bere jardunean azken 5 urteetan, eta InteRed-ek Zaintzak biziz eta Eraldatu sarea kanpainen bidez lagundu die. Erdigunea dagoen Bailen barrutia populazio-dentsitate handia eta ekipamendu eta zerbitzu gutxi dituen eremu bat, eta beraz lan hori oso beharrezko bihurtzen da.

Nola?

Talde hau izan zen Ludopedagogiaren inguruan hoberen eta gehien lan egin zuen taldeetako bat, taldea kontzientziatzeko eta gizartea eraldatzeko ahalduntzeko jokoa erabiltzen duen heziketarako metodologia-proposamen

bat da. Horrela, jokoari saioa bat baino gehiago eskaini zitzaizkion, inguru lasai eta erlaxatu bat sortu nahian. InteRed-ek editatutako **“Jolastu eta ekin”**⁵ liburua hartu zuten dinamikadun prozesuen oinarri.

Taldeak lehendik dauden gizarte-mobilizazio moduei buruzko heziketa xehea jaso zuen, gizarte-partaidetzari buruzko ezagutzak falta zirela ikusi baitzen. Ikasketa-prozesuan zehar, taldea gehien identifikatzen zen eta denborak eta baliabideak hoberen egokitzen ziren estrategiak identifikatu ziren.

Prozesuaren une batean, txango bat zela-eta, bost (5) mutilekin bakarrik lan egin behar izan zen eta saioa aldatu eta egokitu behar izan zen. Saio horretan, kanpainaren gaia sakondu ahal izan zuten eta aukera ona izan zen beren maskulinitasuna nola eraikitzen duten, nola nabaritzen duten eta bizi duten jakiteko, baita zaintzez duten ikuspegia sakontzeko ere, taldeak duen erantzukizunak eta harreman-gaitasuna nabarmenduz.

Prozesua berriro ere talde guztiarekin egin zenean, bikoteen arteko, emakumezko bikoteen eta gizonezko eta emakumezko bikoteen arteko indarkerien artean gizarteak erreakzionatzeko moduak ezagutzera bideratu zen denbora. Orduan, taldeak erabaki zuen bere mobilizazio-ekintza emakumeen aurkako indarkeria salatzeke eta herritarrek arduratzen hartzeko eta zaintzeko eta indarkeria-egoeretan ekiteko duen beharrari buruz arduratzen hartzeko eta zaintzeko erabiltzea.

Indarguneak

- Taldeak tailerrak egin baino lehen konfiantza-maila altua duenean, tailerretan gaiak are gehiago sakontzen dira. Hasieratik ludopedagogia gehituta, gainera, konfiantza hori eta taldeko lana areagotzen laguntzen du.
- Nahiz eta aurrez planifikatu gabe egon, mutilekin bakarrik lan egitea aukera bat izan zen eurentzat, normalean ez dutelako hainbeste parte hartzen, eta kasu horretan beren ideiak adierazi ahal izan zituztelako pertsona gutxiagoren aurrean. Taldeko pasiboak direnez, beste zalantza batzuk

5. <http://redciudadaniaglobal.org/wp-content/uploads/2017/04/interred-Jugar-y-Actuar.pdf>

zituzten eta gizartea eraldatzeko prozesuaren beste une batean zeuden eta hori interesgarria izan zen eurentzat. Pribilegio maskulinoak ezagutzen hasteko aukera izan zuten, eta horretaz azkar jabetu eta neskenenganako enpatia erakutsiz erreakzionatu zuten.

- Dramatizazioan eta entseguan oinarritutako metodologia eta beste antzerti-teknika batzuek oso ongi funtzionatu zuten taldearekin, euren arteko konfiantzari eta lasaitasunari eta mintzamenari eta hitzezkoa ez den adierazpenari esker. Alabaina, gaitasun horiek nabarmenagoak dira nesketan, eta ondorioz, parte gehiago hartzen zuten.

Ahulguneak

- Mutilen parte-hartzea indartzeko genero-ikuspegitik landu nahi izan arren, badirudi ez zutela beren tokia aurkitu, neskek taldeko protagonismoa hartzean. Baten batek hartu zuen parte neskek emandako babes positiboari esker.
- Nesken protagonismoak ahalduntze feminista indartu zuen, batez ere hitza hartuta, beren burua ezagututa eta autoestimua indartuta, baina horrek ez du esan nahi emakume gisa dituzten eskubideen kontzientzia berezia hartu zutenik.
- Mobilizazio-proposamen bat identifikatzeko prozesua oso konplexua da mobilizazioetan eta gizarte-ekintzetan esperientzia gutxi duten gazteentzat, eta are gehiago denbora gutxi bada. Taldea arriskuan dagoen une bat ere bada, egoera berri baten aurrean jartzen direlako, beldur eta emozio berriekin. Hori kudeatzeko denbora eta mobilizazio bat sortzeko behar duguna batuta, gutxienez ordu eta erdi edo 2 ordu behar dira.
- Ekintzaren aurreko saioan baliabide asko antolatu behar dira eta, era berean, ezinbestekoa da euren prozesu pertsonalak babesten jarraitzea eta taldearen prozesuekin konektatzea. Eta oso konplexu egiten da denbora faltagatik.

Irakaskuntza

- Proposamena ongi aplikatuta lantzeko gaiak ikasleek eurek proposatutakoak izango direla oinarritzen da proposamenaren potentzialtasun nagusia. Gainera, bizipen bidezko ikaskuntza izatean, gaiekiko konexioa benetakoa izan ohi da eta horrek motibazioa handiagoa izatea errazten du. Hori posible izan ahal izateko, lagungarria da atera daitezkeen gaiak landuta eramatea, arreta, bakea indartzea lankidetzeta-lanetan, herritarren jarrerak denbora-faltaren aurrean, pertsona guztien integrazioa, aniztasuna...
- Ludopedagogia oso eraginkorra da hau bezalako prozesuetan, saio mugatuak direlako, taldea gaztea delako eta era abstraktuan pentsatzeko gaitasun txikiagoa duelako. Metodologiak bizipen bidez ikaskuntza izatea ahalbidetzen du eta talde osoa motibatzen du. Integratu ohi du taldea zatitzeko arriskua dagoenean. Adibidez, lankidetzeta eta emakumezkoen lidergoa indartzen du baloi-jokoetan, normalean mutilenak izan ohi direnak.
- Talde-lanak autonomia indartzen du erabakiak hartzerakoan, baina egia da ere, gutxiago motibatuta egon diren pertsonen erresistentzia gehiago erakuts dezaketela paper protagonistak hartzeko, kasu honetan gertatu zen moduan. Alabaina, ia guztiek aurkitu zuten hobeto sentiarazi zituen zereginen bat.
- Prozesu honek mutilei duten pribilegio-egoeraz eta, ondorioz, generoaren perspektibaz, jabetzen laguntzen badie ere, mutilek prozesu luzeagoak behar dituzte, eurentzako espazio eskusiboekin eta erreferente maskulinoekin, eraldatzeko ekimena indartsuagoa izan dadin.



3. TALDEA: Herritar sentitzen

Non?

Salamancako Tas elkartean.

Tas elkartea esku-hartze eta gazteak lan-munduan txertatzeko eredu gisa sortu zen. Gainera, prebentzio-programak antolatzeaz arduratzen da gizarte-gabeziak dituzten nerabe- eta gazte-taldeak kalean ikasteko ereduaren alternatiba gisa. Ekintza hauek egiten dituzte: Hezkuntza-laguntza 8 eta 16 urteko adingabeei, Aisialdi-zentroa gazteentzat, Lanbide-orientazioa eta Txertatzeko bideak, Udalekuak: Hiri-kanpaldia eta akanpadak...

Lanean aritu zen taldea Puente Ladrillo izeneko Salamanca hiriko periferiako auzo txiki batekoa da. Salamanca aldirietako auzo marjinal izatetik etengabe haziz doan auzo izatera pasatu da, eta bere populazioa pixkanaka normaltzen doa. Alabaina, gizarte-etxeak dauden auzoko gunerik

zaharrenean, hor diraute marjinazio-faktoreek eta arreta eman behar zaien eta arlo desberdinetatik tratatu behar diren gizarte-desabantaila garbiak.

Norekin?

Hezkuntza-maila baxuko (amaitu gabe baitzuten derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)) eta ekonomia-maila baxuko 16 eta 21 urteko ijito-talde batekin, oinarrizko beharrak estaltzeko zailtasun handiekin, bizi diren familiako kideak langabezia daudenak edo lan prekarioak dituztenak, hala nola txatarra biltzea edo merkatuko postuak.

Batzuk dagoeneko guraso dira 17 urterekin eta beste batzuk ezkondata daude 17 eta 18 urterekin.

Ez dute gizarte-laguntzarik jasotzeko eta ez dira eskola-sistema formalak eta ez-formalak eskaintzen duen inolako heziketara joaten. Bere ardua nagusia lana aurkitzea da, autoestimu baxua dute ijitoak ez diren pertsonen eskubide berak ez dituztelako alde aurretiko ideia dutelako.

Tailerretan edo eskoletan parte hartzea baztertzen dute, institutua gogorarazten dielako, eta hezkuntza formaleko esperientzia ez baita atsegina izan eurentzat.

Talde oso patriarkala da, jaso duten kulturari eta hezkuntzari oso markatuta baitaude genero-funtzioak eta hori oso presente dago neska-mutilen arteko harremanetan. Oso erlijiosoak dira, katolikoak, eta horrek asko markatzen ditu ijitoen komunitatean jarraitzen dituen jarrerak, balioak eta idatzi gabeko arauak.

Taldean lan egiteko, bat egiteko eta pertsona desberdinak lankidetzan aritzeko gaitasunak nabarmentzen ditugu beren kulturatik. Nola senideen, adinekoen eta haurren zaintza euren printzipioen eta balioen oinarri diren. Aitzitik, ez da hainbeste osasuna eta ingurumena zaintzea.

Nola?

Hasi baino lehen, beharrezko jo zen fokua taldea ezagutzeko eta konfiantza sortzeko inguru bat sortzen jartzea, bizi garen testuinguruari eta errealitateari buruzko eztabaida sortzen hasi baino lehen.

Taldeko kideek duten autoestimu baxuak eta harreman matxistek eta indarkeriazkoek jabeazazi ziguten norbere burua ezagutzea eta taldeko pertsonen baliabide pertsonalak eta giza baliabideak ezagutzea ahalbidetu behar zela, aurrejuzguak eta estereotipoak kentzeko.

Enpatia handitzea eta taldeko pertsona guztiak entzutea eta haiek zaintzeak, parte hartzea eta nortasunaren eraikuntza soziala bultzatu zuten. Pixkanaka urrats handiagoak eman genituen, pentsamendu kritikoa indartzeko eta talde-soluzioak bilatzeko, beste errealitate bat imajinatzeko.

Mobilizazioaren jarduera ijito-kulturako estereotipoak haustean zetzan. Ijitoak beren auzoan hainbat ekintza egiten agertzen ziren argazki-erakusketa bat antolatu zen, haiek ere errealitatearen eta herritar berriak sortzeko eraldaketa horren parte direla erakusteko.

Indarguneak

- Oso ongi ulertzen dute talde-lana, bere kulturarekin oso lotuta baitoa, eta txikitatik familia zaintzeko hezten baitituzte.
- Eskubideak eta betebeharrak dituzten pertsonak direla jabetzea izan da taldearen aurkikuntza handia, gizarte bateko kide izatea ez dela “besteen” (ijitoak ez diren pertsonak “payo” edo “paya” deitzen dietenak) erantzukizuna soilik, eta erantzunkideak sentitzen hasi ziren.
- Eraldaketa pertsonal handia izan da, norbanakoaren inplikazioan sakondu dute arazo orokorrak konpontzeko, jabetzen dira euren arazo pertsonalak eta familiakoak hertsiki lotuta daudela gizartearen egiturekin eta arazoekin.

Ahulguneak

- Arazoak dituzte pentsamendu abstraktuarekin, eta asko kostatzen zaie eduki batzuk ulertzea, pentsatzea eta modu independentean eta kritikoa jardutea. Bere errealitatea familiara eta auzora mugatzen da. Mundu bat eta herritar global bat ulertzea, baita independentziak arazoak dakartzala ere.
- Harremani buruz, jarrera matxistak nabarmentzen dira taldean parte hartzen duten neskekiko, neskek emandako iritziak eta beren pentsatzeko modua kritikatu. Emakumeak gaitasun gutxiago dutela uste baitute.

Indarkeriazko jarrerak ere ageri dira parte hartzaileen artean, orokortuta dute euren artean hitz egiteko eta komunikatzeko modu hori, ahotsa goratuz, gorputzarekin keinuak eginez... Ondorioz, gaitasun pertsonalak eta taldea kohesionatzeko lan handia eginez hasi behar da, estereotipoak eta aurrejuzuak kenduz, beste edozein helburu lortu aurretik.

Irakaskuntzak

- Metodologia berrien erabilerak (sozio-afektiboak eta gatazkak kudeatzekoak, esaterako) bere tokiko ingurunean izatearen, elkarbizitzearen, ezagutzearen eta ekitearen kontzientziaren bide berri bat ezagutzen lagundu du, berena ez zela sentitzen baizuten.
- Generoaren ikuspegiak errealitatea ulertzeko modua eraldatu die eta guztien parte hartzeak “herritartasuna eraikitzen duela” ulertu dute. Horrek beren autoestimua eta gaitasun pertsonalak indartu ditu, baina batez ere taldearen ahalduntzea.
- Agian ikaskuntza handiena metodologia honek nola beste prozesu batzuek indartzen dituen ikustea izan da (kasu honetan lana bilatzea), nola banako ahalduntzeak, parte-hartzeak eta mobilizazioak bizitzarako ezinbesteko gaitasun batzuk garatzen dituen eta herritar berri batzuk eraikitzen dituen.





4. TALDEA: Jolastea zaintzen den bitartean

Non?

Zaragozako Magdalena auzoan diharduen Gusantina gizarte-hezkuntzako elkarteak, "Zumitzak" proiektuaren bidez. Proiektu honek auzoko emakume gazteek hazkuntza pertsonaleko eta profesionaleko prozesu bati ekitea bultzatzen du lan-mundura gerturatzen dituen hezkuntza-ibilbide baten bidez, haurrak zainduz eta bitartean auzoko amek lasai egin dezaten lan etxetik kanpora, seme-alabak konfiantzazko emakumeen esku daudela jakinda. Auzoko aniztasunetik eraikitako proiektua da, familia migratzaileen eta bertako familien familia eta lana uztatu nahi ditu, komunitateko laguntza-sare bat ezarriz. Proiektuak dagoeneko zazpi urte daramatza abian, heziketa-prozesuak sortuz auzoko gazteekin eta neska-mutilen zaintzan kalitatezko-mailak lortuz.

Norekin?

19 eta 30 urte arteko 8 emakumerekin, elkartearen “Zumitzak” proiektuko zaintzaile diren espainiar ijitoak eta marokoarrak.

Nola?

Proposamena inplementatu den hilabeteetan, gazteak ahalduntzeko prozesu bat gauzatu zen eta banako hausnarketatik taldekora igaro zen, banako gaitasunetatik eta trebetasunetatik abiatuta. Tailerren bidez, taldea bere diskurtsoa eraikitzen hasi zen, inguratzen gaituen errealitateari buruzko analisi kritiko bat egiteko eztabaidarako gaitasunak garatuz, betiere zaintzen ikuspegitik begiratuta.

Proposatutako dinamikek hausnarketa sakonak utzi zituzten eta genero-desberdintasunak identifikatu eta beren bizitzetan zeuden botere-harremanei buruzko kontzientzia kritikoa zituen azterketa bat egin ahal izan zen. Gertueneko errealitateetik abiatuta, gaur egungo sistema sozioekonomikoari buruz hausnartu ahal izan zuten, maila orokorrean bidegabea dena. Eskubideen jabetzeak errealitate berriak nahi izatera eraman zituen emakumeak eta gizartea eraldatzea posible zela uste izatera. Prozesuaren azken fasean, eta lankidetzeta-gaitasunei buruzko lan-markoan, emakumeek ikasi zuten gizarte aldaketako ekintzak identifikatzen eta horien plangintza egiten.

Aurreko eztabaida horren emaitza gisa, non zaintza-lanen balio-galtzea, haurren eskubideen ahulezia eta ekonomia desberdintasuna erlazionatu ziren, balioan jarri zuten lan egiten duten proiektua errealitate horien aurkako erresistentzia-elementu gisa. Hori dela-eta, erabaki zuten bere mobilizazio-ekintza bere proiektua jende gehiagori ezagutaraztera bideratu behar zutela, eta modu onena bere gaitasunak eta ezagutzak aprobetxatuz egitea zela, eta ekarpen hori egin zezaketela gizarte-heziketazko elkarte batean eta haurrekin lan egiten zutelako. Hori dela-eta, proiektua jokoaren bidez aurkeztuko zuten. Identifikatuko zituzten jokoak sortzen heziketa-saio bat pasatu ostean, Gusantina elkartearen ikasturte amaierako festan aurkeztu zuten. Alabaina, urrutirago joan nahi izan zuten eta diseinatutako joko hori erabili nahi dute jaietan, ekitaldietan edo familiekin bere proiektua aurkezteko Zaragoza hiriko beste elkarte batzuei.

Indarguneak

- Profesionalki zaintzan jarduten emakume-talde bat izanik, proposamena zaintza-lanen balio galtzean eta oinarritzen den genero-desberdintasunean oinarritu denean proposamena, sormenezko proposamenak garatu dituzte eta egiten duten lanaren balioaz kontzientzia hartu dute. “Arazoen molekula” dinamikan, balio galtze horrek eragiten zizkien sentimendu negatiboen artean, borrokalari ere sentitzen direla aipatu zuten. Zalantzarik gabe urrats handia ahalduz feministaren prozesuan!
- Talde-lana indartzen du eta Zumitzak proiektuan parte hartzaile berriak gehitzea indartzen du, prozesuan parte hartu duten parte-hartzaile beteteranoek ekintza honetan parte hartzera gonbidatu baitituzte trebakuntza-prozesuan dihardutenak. Horrela, neska berriak proiektuarekin konprometituko dira eta taldearen kohesionatuko da. Beraz, aldatetaren agente biderkatzaile bihurtzen dira.

Ahulguneak

- Zenbait parte-hartzaile migratzaileak zirenez ez zuten gaztelania guztiz menderatzen eta deskoordinazio-egoerak sortu ziren; baina, euren arteko “zaintza” erreakzio bat ere sortu zuten eta beste ikaskide batzuk interprete bihurtu ziren eta taldeko kide izatearen sentimendua ikusarazi zuten.
- Taldearen dinamikari eta agurrei eta norberaren kezkek partekatzeari eskainitako denboraren ondorioz, kostatzen zen jarduerak hastea eta denbora falta izaten zen ongi garatzeko; ondorioz, hasieran planteatutako dinamika ugari ezin izan ziren egin. Alabaina, taldea oso kohesionatuta zegoen eta gaiak hurbiletik ukitzen zirenez oso erraz hasten ziren eztabaidan eta hausnarketan.
- Taldea mistoa ez zenez (emakumeak bakarrik zeuden), gizonen pribilegioen jabetzeari buruzko hausnarketa ez zen egin, ez bidezkoa.

Irakaskuntzak

- Errealitatearen azterketa kritiko bat egitea eta gizarteko zenbait bidegabekeriaren betiketean dugun erantzukizunaz jabetzea abiapuntua izan zen pertsonalki eraldatzen, mobilizatzen eta ahalduz hasteko. Eta

gainera, analisia norberaren esperientzian gauzatu badaiteke, ikaskuntzen eragina handiagoa da.

- Proposamena taldeetan inplementatzea dagoeneko erakutsitako taldeko eta konfiantzazko talde batean, prozesua errazten duen onespen eta konfiantza giro bat ziurtatzen dute. Batera lanean eta hezten denbora igaro izanak galdetegi pertsonala eta kolektiboa egitera irekitzen ditu.



5. TALDEA: Taldea zainduz

Non?

Malagako **InteRed Joven** egoitzan.

Malagako InteRed batzordea 1999an sortu zen eta tarteka boluntarioak trebatzen ditu, ekintzak egiten ditu kalean, politikan parte hartzen du eta sentsibilizazio-lanak eta gizarte-mobilizazioak egiten ditu. Pertsona boluntarioen talde iraunkor bat dago profil oso desberdinekin eta konpromiso-maila desberdinekoak, probintzian egiteko ekintzen ardura bere egiten dutenak.

Norekin?

InteRed-eko Malagako batzordeko boluntario-taldearekin, 17 eta 70 urte arteko 10 pertsonez osatutakoa.

Nola?

Taldea osatzen zuten kideek dagoeneko hartu zuten parte InteRed-eko ekintzetan “Zaintzak biziz” kanpainaren baitan, baina ez modu berean, ezta erantzukizun berarekin ere. Horrela, kanpaina eta GGKE aurkeztuz eta zaintzen eta gizarte-mobilizazioei buruzko teoriak eta norberaren esperientziak eta ezagutzak uztartuz hasi ziren. Zaintzetako gizarteko desberdintasunak erakutsi zitzaizkien, iceberg batekin irudikatuz eta kanpainako bideoa ikusi zuten. Handi aurrera, herritarren genero-desberdintasunari buruzko eztabaida hasi zen.

Jokoaren bidez, prozesu landu bat eta edozein ekimenetan emaitza arrakastatsuak lortzeko lankidetzaren eta berdintasunaren garrantzia agerian utzi zen.

Autoezagutzeko fasean, ezaugarriak aztertzeko lan pertsonal bat egin zen. Horretarako, molekula pertsonal bat marraztu zuten (proposamenean azaldutako dinamika), ondoren “supermolekula” bat egiteko, non talde osoaren ezaugarriak batu zituzten, eta gizarte-mobilizaziorako talde gisa gisa zuten potentzialtasuna eta gaitasunak ikusi ahal izan zuten. Horrela, taldeak gizartearekiko zituen ardurak ikusi ahal izan ziren, baita aldatzeko dituen nahiak eta zein momentu desberdinetan gertatzen den.

Saioa oso bat bideratu zen gizarte-mobilizazioa aukeratzera eta prestatzera. Taldeak Andaluziako ordezkartzako gainerako boluntarioen sentsibilizazioa lehenestea erabaki zuen zaintzen krisiaren aurrean eta urtean bitan egiten den eta Jaengo, Malagako, Kordobako, Sevillako eta Granadako Boluntarioen Andaluziako Topaketaz baliatu nahi izan zuen. Horretarako, egun horretan hiru jarduera egitea erabaki zuten: Taldea gainerako boluntarioen artean zaintzei

buruzko ideia transmititzeko, poema bat batera irakurtzea, dantza eta ipuin bat irakurtzea.

Indarguneak

- Erakundearekin duten arduraz gain, aisialdiko jarduera beretan parte hartzen duten pertsonak osatzen dute taldea, eta horrek talde-hausnarketa eta taldeko elkarrizketa aberasten ditu.
- Zaintzen ikuspegia zer den ulertu ostean, autoezagutzako faseak ahalduz feminizatik birdefinitzen ikasteko balio izan zien emakumeei eta taldearen bozeramailetza maskulino desproporzionatuari mugak jartzea ekarri zuen horrek. Saioan bertan tratatu zenez, zenbait erresistentzia eragin zituen gizonaen artean ez baitziren pribilegioak zituztenen jabe.
- Emakumeek garatzeko eta eskubideak gauzatzeko izan dituzten zailtasunak ezatzeak ere ahalbideratu zuten kontzientzia hori.

Ahulguneak

- Prozesuan gizon bakarria izateak mutil gazteen ikuspegiarekin aberastea zailtzen du, nahiz eta bertaratu zen mutila jabetu zen eta gizon bezala zuen egoera pribilegiatua adierazi zuen hitzez.
- Alabaina, genero-kontzientziaz jabetzen doazen neskek gizonen papera defendatzen eta euren egoera patriarkatuaren beste biktima batzuk bezala hauspotzen jarraitzeak erakusten du oraindik zailak direla hezkuntza patriarkatu batetik ikasitakoa ezabatzea.

Irakaskuntzak

- Generoaren eta zaintzen ikuspegitik egin zen parte-hartzaileen autoanalisiak eraldaketa pertsonala errazten du.
- Gizonekin genero-desberdintasuna lantzean, beti argi utzi behar da, sistema patriarkalean, emakumeek ez dituzten pribilegio batzuk dituztela, entzutea, hautatzeko eskubidea edo zilegitasun soziala, esaterako.



6. TALDEA: Besarkadekin integratzen

Non?

La Rondilla auzoan dagoen Red Íncola-ren egoitzan (Valladolid). Immigranteen populazio gehien duen auzoetako bat (% 7,64), hiriaren batez bestekotik oso urruti.

Alabaina, prozesuan parte hartu zutenak hiriko hainbat auzotakoak ziren, eta haietan era gizarte-aldea asko hazi da azken urteetan. Auzo horiek Espainiako 100 auzo pobreenen artean daude.

Portaera-ereduetako kultura-aldeek nahasmendu- eta bakardade-egoerak eragiten dituzte. Migrante gazteak ez dira beren kide espainiarrak bezalakoak sentitzen baina ez dituzte bere jatorriko herrialdeko kultura dutenak ere ezagutzen. Adingabe migratzaileen artean parte-hartzeko eta aukeraberdintasuna indartzeko neurriak direla erronka handietako bat, eta beraz, proiektu honetan lantzen dira.

Normalean talde ahulak dira eta Giza Eskubideen, emakumeen, gizarte-justiziaren eta genero-berdintasunaren kontzientzia eta konpromisoa hartzeak beren gazteen ahalduntzeko prozesua bultzatzeko balio die.

Norekin?

Valladolideko Red Íncola elkarteak eskola-laguntzak proiektu batean parte hartzen duten 13 eta 18 urte arteko gazte migratzaileekin.

Proiektuaren hartzailleak faktore eta ezaugarri konplexuagoak dituzte eta gazte-taldearekin egiten diren esku-hartzeak markatzen dituzte. Guztiak migranteak dira, eta jatorriko herrialde desberdina dute, batzuk 6-7 urte daramatzate Espainian bizitzen eta beste batzuk 5 hilabete baino gutxiago daramatzate.

Bazterketa-arriskuan dauden familietatik datoz, baliabide ekonomikoak falta zaizkien etxeetatik, indarkeria-egoerak dituztenak, heziketa-falta, langabezia daudenak eta osasun-arazoak dituztenak.

Gazteen taldean arreta jartzen badugu, batzuek zailtasunak dituzte hizkuntzarekin, eskola-arazoak dituzte eta eskola-porrota jasaten dute eta heziketa-sistema behar baino lehen uzten dute, baliabide ekonomikoen faltak elikadurari, osasunari, jantziei eta familiako giroari eragiten die.

Parte hartzaileek elkar ezagutzen zuten baina ez ziren elkarrekin ibiltzen nazionalitateagatik edo kulturengatik, zaila da Marokoko bat Aljeriako beste batekin ikustea, edo Dominikar Errepublikako bat arabiar herrialdeetako beste batekin. Familiek aurrejuzgu horiek adingabeei pasatu dizkiete.

Nola?

Programa honen helburua beren jarduerak bultzatu eta dinamizatuko zituen gazteentzako aisialdi-talde bat sortzea zen, hirian eta beste herri batzuetan proposatutako ekintzetan parte hartuz “kalea” okupatzea, hau da, eskubideak eta betebeharrak dituztela ulertzea beren testuinguruan erabakitzeko eta ekiteko ahalmena duten herritarrek direlako. Bakarrik doan taldea.

Elkar ezagutzen ez zuten taldea zenez, partaideak ezagutzuz hasi ziren, konfiantza- eta lasaitasun-egoera bat indartzeko, eta parte hartzen jarraitzeko interesa pizteko. Taldearen kohesioa sortu ostean, eztabaida-gune bat sortzen

hasi zen norberaren esperientzietatik abiatuta gizarteko arazoak aztertzeko. Migrazioa, xenofobia, berdinaren arteko indarkeria eta emakumeen eskubideak identifikatu ziren banako arazo gisa, euren orokortasunaren jabe izan gabe.

Aldatzeko alternatibak eskaintzean zentratu zen ibilbidea, errealitate berri bat imajinatuz, autoezagutza-lanarekin eta pertsonen arteko loturak sortuz.

Mobilizazio-jardueran zehar xenofobia landu zen, kalean zihoazenei minutu bateko elkarriketak eginez eta kalean kartel baten bidez zabaldu zuten “besarkadak doan” izeneko ekintza batekin amaitu zuten.

Indarguneak

- Hasiera batean uste genuen genero-aldeak nabarmenak izango zirela harremanenetan eta diskurtsoetan, baina ez da halakorik gertatu, neska-mutilek “eskubideak” eta “berdintasuna” bezalako kontzeptuak erabili zituzten eta parekotasun eta errespetu osoz portatu ziren euren artean. Arazo sozialak identifikatzen dituztenean, gizona ezkoen eta emakumeen artean ez dutela eragin bera nabari dute, eta gauza bera gertatzen da konponbideak edo alternatibak aurkitzean ere, emakumeek eta gizonen proposamen desberdinak egiten dituzte.
- Jokoen eta dinamika aktiboen erabilera da gehien motibatutako zituena metodologia eta parte-hartzea bultzatu zuen, ezinbestekoa izanik heziketa formalarekin lotzen diren fitxak, mahai batean esertzeak eta antzekoen egitura alde batera uzteko.
- Eraldaketa pertsonal bat ikusi da, emozioez, gustatzen zaizunaz, pentsatzen duzunaz eta sentitzen duzunaz hitz egitea, azken batean, barnean duzuna kanporatzea eta gainerakoekin partekatzean pertsona gisa aldatzen zaitu, mundua ikusteko zenuen moduez eta orain ikusten duzun moduez zalantzak sortzen zaizkizu, eta jarrerak aldatzea lortu da.

Ahulguneak

- Tailer bakoitzak oso gutxi irauten du, saioa labur geratzen da eta taldea nekatuta egon ohi da dagoeneko eskola-laguntzako eskoletara joan delako, baina ezinezkoa da familiek beste une bat onartzea gazteak taldera joateko.

- Proposamenak genero-berdintasuna modu esplizituagoan lantzen duen jarduera-proposamenak garatzen jarraituko duela ebaluatu dugu, generoaren oinarrizko kontzeptuak sakontzea errazteko eta horiek aztertzeke tresnak emateko.

Irakaskuntzak

- Ezinbestekoa da familiekin lan egitea, eurek ematen baitute neska-mutilek proiektu honetan parte hartzeko baimena eta fidagaitzak izan ohi dira, migranteak izateagatik jendeak gaizki tratatuko dituela uste baitute. Mesfidatiak dira beste kultura batzuetako neska mutilekin nahastuko direlako, eta horregatik, legezko tutoreekin harremana bultzatzea eta euren konfiantza lortzea oso egokia izan da.
- Saioak prestatzeko hezitzailearekin elkarlanean aritzeari esker izan du arrakasta proiektuak, metodologia bere egin baitu eta horren arabera markatu baitira ekintza eta esku-hartze guztiak.
- Honelako populazioarekin gaitasunak lantzea oso garrantzitsua da. Adibidez, komunikazio linguistikoko gaitasunak. Premisa bat hartu genuen abiapuntu: hainbat nazionalitatetako gazteak dira, inor ez da jaio Espainian, eta beraz, hizkuntza zailtasun bat da, nahikoa ongi ulertzen dute gaztelania, baina adierazpenean interpretazio desberdinak nabaritu ziren, eta beraz, komunikatzeko beharrezko gaitasunei denbora eskaini zitzairen (entzuketa aktiboa, arreta) eta kontzeptuak, hitzak eta esamoldeak argitu ziren interpretazio bakarra definitzeko testuinguru zehatza erreferentziazat hartuta. Errespetua, kultura-aniztasunerako eskubidea, kulturen arteko elkarriketa bultzatzea eta, batez ere, gizartearen artekoa, funtsezko gaitasuna da taldeko kohesioa eta berdinen arteko errespetua lortzeko.

■ Laburbilduz...

Gune guztietan


- Garrantzitsua da gizarte-mobilizazioko ekimenak prozesu parte-hartzaile baten zati izatea, eta gazteak era kontzientean inplikatzeko. Horretarako funtsezkoa da aztertze eta hausnartzeko fasean, axola zaizkien gaiak tratatzea, errealitatearekin lotuta daudenak (tokikoa eta globala). Norberaren kezketatik, interesetatik edo zalantzetatik abiatuta gazteekin lan egiten bada, ikaskuntza esanguratsuagoak lortzen dira, gaitasun eraldatzaile handiagoa dutenak.
- Ezinbestekoa da partaideek modu aktiboan entzuten zaiela sentitzen duten guneak sortzea, afektiboa presente dagoen inguruneak sortzea, aitortza eta enpatia taldearen autoestimua indartzeko elementu izango diren guneak izatea, banakako eta taldeko ahalduntze-prozesuei laguntzeko.
- Zaintzak metodologiaren erdigunean ezarri behar dira prozesu osoan zehar, zaintzen jardueran ikusgai eginez eta balioa emanez, beharrezkoak baitira taldeari eusteko eta taldea osatzen duten pertsonen partaidetza ahalbidetzen baitute.
- Errealitatearen azterketa kritiko bat egitea eta gizarteko zenbait bidegabekeriaren betikotzean dugun erantzukizunaz jabetzea abiapuntu garrantzitsua da pertsonalki eraldatzeko.
- Genero-desberdintasuna gizon gazteekin lantzean, beharrezkoa da maskulinitasun hegemonikoaren erudia eta sistemak ematen dien pribilegio-postu hori kritikoki aztertzea.

Hezkuntza formaleko guneetan

- GHGH hezkuntza-sistema formala bezala testuinguruan lantzea, partaideak denbora-tarte nahiko luzez batera batera lanean ari direnean, uste genezake talde horiek talde homogeenak eta kohesionatuak direla eta

dagoeneko adostutako interakzio-dinamikak dituztela, baina ez da beti horrela izaten. Gehienetan kideak etiketa, jarrera edo aurrejuzguen bidez ezagutzen dira. Benetan nor garen, gure eta gainerako ikaskideen banako gaitasunak eta trebetasunak zein diren hausnartzeko une bat hartzea da **loturak eta nortasun komun bat** sortzen duen talde bat eraikitzeke printzipioa.

- Egiaztatu dugu **jokoen** eta dinamika aktiboen erabilera dela taldeak gehien motibatzen dituen metodologietako bat. Hezkuntza formaleko betiko egiturak hausteak (mahai baten aurrean esertzea, esaterako) parte hartzea bultzatzen du. Dramatizazioan eta entseguan oinarritutako metodologiak eta beste antzerti-teknika batzuek oso ongi funtzionatu zuten talde batzuekin, euren arteko konfiantza eta lasaitasuna eta mintzamena eta hitzezkoa ez den adierazpena indartuz.
- Proposamena ezin hobeki moldatzen da hezkuntza-gune formal batera eta horrek Hezkuntza Ministerioak proposatutako hezkuntza-curriculumeko **gaitasunak** lantzea ahalbidetzen du.



Hezkuntza ez-formaleko guneetan

- JAcC metodologiak txertatzen diren beste prozesu batzuk indartzen ditu. Adibidez, lan bilatzeko eta eskolaz kanpoko laguntzako prozesuetan, banako ahalduntzea indartzeak, parte hartzea eta gizarte-mobilizazioa indartzeak ezinbesteko **gaitasunak** garatzen ditu bizitza **eskubideen** eta herritartasunaren ikuspegitik hartzeko.
- Bazterketa-arriskuan dauden taldeekin egindako prozesuetan familien parte-hartzeak euren parte-hartzea ahalbidetzen du aldaketa-agente gisa eratzten baitira gertueneko testuinguruetan, etxean. Familien konfiantza lortuta gazteen ahalduntzea ahalbidetzen da, bai taldearena baita norbanakoarena ere, eta gizartean parte hartzeko izan ditzaketen beldurrak uxatzen ditu.



GAZTEAK ZAINZAK BIZIZ

Gazteen gizarteko parte-hartzea bultzatzeko proposamena



InteRed-en gobernagarritasuna, gizartean parte-hartzea eta ikuspegi globala duen herritar kritiko bat bultzatzeko dihardugu lanean. Eta horretarako, eraldaketa pertsonalak eta sozialak gauatzeko prozesuetan laguntzea helburu duten ekimenak garatzen ditugu, kontzientziatutako eta giza eskubideekin konprometitutako herritarrak izateko.

Uste dugu, etorkizun oso ez urrunean gizarteari eragingo dioten erabakiak hartu beharko dituzten gaurko gazteekin lan egitean errespetuzko eredu sozial eta politikoko eredu bat sortzen lagunduko duela, non herritarrak errealitate globalarekin konprometitu diren, giza eskubideak eta nesken eta emakumeen eskubideak errespetatuz eta defendatuz koherentzian biziko den, garapen-eredu bidegabeak zalantzan jarriko dituen, zaintza aitortu eta balioa emango dien, ingurumena eta pertsonak errespetatzen dituen bizimodua bultzatuko duen eta izateko eta munduan egoteko beste modu batzuek pentsatzeko sormen-prozesuak proposatuko dituen.

InteRed-en jarrera kritikoa eta mundurako begirada solidario bat bultzatu nahi dugu gazteen artean.